



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA 2021SUBV0006 COD.EXP.	
EXPEDIENTEA DIRU-LAGUNTZA EXPEDIENTE	
TITULARRA FUNDACION IZAN TITULAR	

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

JANIRE IGOA MERINO, ZINEGOTZI DELEGATUAK, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1.eta 3., eta 23.4 artikuluetan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

Udal honetako 2021eko aurrekontuetan, hainbat diru-laguntza zuzenean ematea aurreikusten da, gizarte politikaren arlo ezberdiñetan bere jarduerak garatzen dituzten elkarteentzako. Momentu honetan aurrekontua izanik eta IZAN FUNDAZIOAren eskabidearen aurrean

KONTUTAN HARTURIK

Toki-Araunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 21.1.f) artikuluan xedatutakoa, non Alkatetzari dagokion gastuak agintzea, bere eskumeneko mugaren barruan.

Alkate-Lehendakariak egindako Delegazio-Ebazpenak, Gizarte Zerbitzutako kudeaketa ekonomikoa Zinegotzi Delegatu honen esku jartzen duelarik.

Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2. a) eta 28. artikuluetan xedatutakoaren arabera, era zuzenean ematen diren dirulaguntzak hitzarmen baten bidez formalizatu behar dira. Kasu honetan Azkoitiko Udala eta Izan Fundazioaren arteko hitzarmena onartzea proposatzen da.

Beraz, honako hau

ERABAKI DUT

LEHENIK: Azkoitiko Udala eta IZAN FUNDAZIOAren arteko hitzarmena onartzea, entitate horrek 2021eko ekitaldian garatuko dituen jarduerak diruz laguntzeko.

BIGARREN: 2.000 euroko diru-laguntza ordaintzea 2021eko aurrekontuko 1.4000.481.230.00.11 partidari atxikituz eta kontu zenbaki honetan ordaintzea 2095 5001 03 1061594866.

ESKU72e67f6f-8a56-410b-bb30-95213a4887f5



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

HIRUGARREN: Erabaki honen berri interesatuari eta kontuhartzaileari ematea.

LAUGARREN: Dirulaguntza honen emakida Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian eta Gipuzkoako atarian (gardentasunaren atarian) argitaratzea.

Erabaki honek amaiera jarri dio administrazio-bideari.

Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu ordez, edo aipatu errekurtoaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Bestaldetik, Administrazioak birjarpen errekurtoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkezteko, birjarpen errekurtoa tartekatu zuen datatik kontatzen hasita.

ZINEGOTZI DELEGATUAK

IDAZKARIAK

GIZARTE ONGIZATE SAILA – Tel . 943 857174 / Fax. 943 852140 – gizar@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU72e67f6f-8a56-410b-bb30-95213a4887f5**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021SUBV0006-Resolución/Resolución (FUNDACION IZAN)